# MUXIKEBARRI

## PROGRAMAZIOA PROGRAMACIÓN 2023

**IRAILA > ABENDUA**
SEPTIEMBRE > DICIEMBRE

Getxo
bizi ezazu



**GETXO FOLK 2023**
**39. NAZIOARTEKO FOLK JAIALDIA**
39.º FESTIVAL INTERNACIONAL DE FOLK



ANTZERKIA / TEATRO
**LOS DÍAS AJENOS DE BOB**
BOB POP



DANTZA-ANTZERKIA / DANZA-TEATRO
**PANDATARIA**
CHEVI MURADAY
CAYETANA GUILLÉN CUERVO



MUSIKA / MÚSICA
**ISMAEL SERRANO**
LA CANCIÓN DE NUESTRA VIDA

## GETXOKO KULTUR ETXEA AULA DE CULTURA DE GETXO

**Muxikebarri**
Basagoiti Etorbidea, 77
Tel.: 94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus

**Algorta**
Villamonte, A-8 (behea / bajo)
kulturetxea@getxo.eus

**Romo**
Santa Eugenia plaza, 1
Tel.: 94 466 00 22
rke@getxo.eus

**www.getxo.eus**

## SARE SOZIALAK REDES SOCIALES

**Getxo Kultura**
- www.facebook.com/getxokultura
- twitter.com/getxokultura
- www.instagram.com/getxokultura
- Getxo Kultura

## BABESLEAK PATROCINADORES

Lege-gordailua / Depósito legal: BI 00299-2021

FSC MIXTO Papel FSC® C116691

# AURKIBIDEA ÍNDICE

**4-5**
**NABARMENDUAK** DESTACADOS

**6-43**
**EKITALDIAK** EVENTOS

**44 - 47**
**EGUTEGIA** CALENDARIO

**48**
**BALDINTZA OROKORRAK** CONDICIONES GENERALES

**49**
**SARRERA SALMENTA** VENTA DE ENTRADAS

**50 - 51**
**ARETOEN PLANOAK** PLANOS DE LAS SALAS

## 2 IRAILA SEPTIEMBRE

MUSIKA MÚSICA

**19:00 / 8 €**

### BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA



+ INFO: ORR. / PÁG. 6

## 8 > 10 IRAILA SEPTIEMBRE

MUSIKA MÚSICA

**20:00 / BONUA** ABONO **7 €**

### 37. HABANERA JAIALDIA

37.º FESTIVAL DE HABANERAS



+ INFO: ORR. / PÁG. 8-9

## 13 > 17 IRAILA SEPTIEMBRE

MUSIKA MÚSICA

**BONUA** ABONO **70 €**

### 39. NAZIOARTEKO FOLK JAIALDIA

39.ª FESTIVAL INTERNACIONAL DE FOLK



+ INFO: ORR. / PÁG. 10-18

## 29 IRAILA SEPTIEMBRE

ANTZERKIA TEATRO

**19:30 / 12 €**

### LOS DÍAS AJENOS DE BOB

BOB POP



+ INFO: ORR. / PÁG. 21

## 6 > 22 URRIA
OCTUBRE

GETXO ESZENA 2023

### 41. ARTE ESZENIKOEN JARDUNALDIAK
41.ª JORNADAS DE ARTES ESCÉNICAS



+ INFO: ORR. / PÁG. 24-29

## 12 AZAROA
NOVIEMBRE

DANTZA
DANZA

19:00 / 10 €

### SHINE
LASALA



+ INFO: ORR. / PÁG. 35

## 2 ABENDUA
DICIEMBRE

MUSIKA
MÚSICA

22:00 / 18 €

### SU TA GAR



+ INFO: ORR. / PÁG. 39

## 10 ABENDUA
DICIEMBRE

HAURRAK
INFANTIL

16:30- 19:00 / 10 €

### GO!AZEN 10.0
GLU GLU PRODUKZIOAK



+ INFO: ORR. / PÁG. 40

MUSIKA MÚSICA

# 2 **IRAILA** SEPTIEMBRE **LARUNBATA** SÁBADO

## 19:00 / 8 €

## **ARETOA** SALA: **EREAGA**

**75 MIN**

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO



# BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

## Tres genios prematuros

**Arriagak, Mozartek eta Schubertek ia garaikideak izatea eta adin goiztiarrean zorigaiztoko patua partekatzea dute komunean, kasurik onenean hogeita hamarrena gainditu gabe. Horrek ez zuen eragotzi musika-katalogo miresgarri bat uztea, maisulanez betea, beren bizitzaren laburtasunak goiztiartasun sinestezin batean kondentsatu balitz bezala. Oraingo honetan, BOSek (Bilbao Orkestra Sinfonikoa) hiru jeinu goiztiar horien obrak interpretatuko ditu, eta gaztetasun ikaragarri hori partekatzen duten bi interpretek zerbitzatuko dituzte: Julia Cruz zuzendari valentziarrak eta Pablo Pardo biolinista bilbotarrak.**

Arriaga, Mozart y Schubert tienen en común el ser casi coetáneo y el compartir un destino fatal a una edad prematura, sin apenas superar, en la mejora de los casos, la treintena. Ello no impidió que nos legaran un catálogo musical admirable, repleto de obras maestras, como si la brevedad de sus vidas hubiera condensado en una increíble precocidad. En esta ocasión, la BOS (Bilbao Orkestra Sinfonikoa) interpretará las obras de estos tres genios prematuros y vendrán servidas por dos intérpretes que comparten también esta arrolladora juventud: la valenciana directora Julia Cruz y el bilbaíno biolinista Pablo Pardo.

**IRAILA** SEPTIEMBRE
**IGANDEA** DOMINGO **3**

**18:00 / 6 €**

**HAURRAK** INFANTIL

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA** (**ESERLEKUAN** EN BUTACA)
**80 MIN>4URTE** >4 AÑOS

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO



# MAMUT

## Markeliñe

**Alegiazko paleolito batean, hominido batzuk otsoen mehatxutik ihesi, babesa aurkituko dute mamut baten hezurren ondoan. Eta bizirauteko borrokan, elkar ulertzea erabakiko dute, beraien artean ezberdintasunak izan arren. Bapatean, fartsa, antzerki edo fikziozko lehen keinu bat sortuko da, eta hezurrak sormenerako lanabes bilakatuko dira, jolas. Eta jolas honetan irudimenak deskubrimenduak sortuko ditu: lengoaia, artea, samurtasuna, sinboloa, denboraren kontzientzia edo suaren posibilitateak…**

En un paleolítico imaginario, unos homínidos se refugian de la amenaza de los lobos junto a los huesos de un mamut. Y en su lucha por la supervivencia deciden entenderse a pesar de sus diferencias. De pronto, surge un primer gesto de farsa, teatro o ficción, y los huesos se convierten en herramienta para la creatividad y el juego donde la imaginación genera descubrimientos como el lenguaje, el arte, la ternura, el símbolo, la consciencia del tiempo o las posibilidades del fuego…

# 37. HABANERA JAIALDIA

# 37.º FESTIVAL DE HABANERAS

**8 > 10 IRAILA** SEPTIEMBRE

**20:00**

**BONUA** ABONO: **7 €**

**ARETOA** SALA: EREAGA

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**

ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO



**IRAILA** SEPTIEMBRE **8**
**OSTIRALA** VIERNES

**20:00 / 3 €**

**BONUA** ABONO: **7 €**

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**75 MIN**

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**

ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO



## XARXA

**Habanera Jaialdiak Kataluniako Xarxa eta Mestre d 'Aixa taldeen itsas erritmoak ekarriko dizkigu aurten. Azken egunean, Liuba Maria Hevia konpositore, trobadore eta abeslariarekin itxiko dugu jaialdia, Kubako eta Iberoamerikako musikaren panoraman ezinbesteko ahotsa bihurtu dena.**

El Festival de Habaneras nos acerca este año los ritmos marineros de las formaciones catalanas Xarxa y Mestre d'Aixa. El último día cerraremos el festival con la compositora, trovadora y cantante Liuba Maria Hevia, la cual se ha convertido en una de las voces imprescindibles del panorama musical cubano e iberoamericano.

**Xarxa habanera laukotea 1984an sortzen da Bartzelonako Poble Sec auzoan. Taldeko kideak abesbatzen munduan ibilitakoak dira eta José Luis Romera, Manuel de los Ojos akordeoi eta piano jolea eta beste kide batzuekin batera hartzen dute taldea osatzeko erabakia. Xarxak errepertorio herrikoia eskaintzen du, umore ona eta profesionaltasuna oinarri hartuta, eta oso gogoan dute saririk onena genero musikal hau maite duen jendearen esker ona dela.**

El cuarteto de Habaneras Xarxa se forma en octubre de 1984 en el barrio Barcelonés del Poble Sec. Provienen del mundo del canto coral y con la colaboración del maestro de acordeón y piano Manuel de los Ojos, José Luis Romera y de otros componentes, toman la iniciativa de formar esta banda. El grupo ofrece un repertorio popular, desde el buen humor y la profesionalidad, tienen muy presente que su mejor recompensa es el agradecimiento de la gente que ama este género musical.

**IRAILA** SEPTIEMBRE
**LARUNBATA** SÁBADO **9**

**20:00 / 3€**
**BONUA** ABONO: **7€**

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO



## MESTRE D'AIXA

**Mestre d'Aixa taldea Vilasar de Mar-en sortu zen orain 35 urte. Ordutik taldeak egitura berbera mantendu izan du: ahots mistoak, akordeoia eta gitarra, perkusio tresnekin lagunduta. Taldeak habanera eta itsas-erritmoak abesti herrikoiekin nahasten dituen berezko estiloa du.**

Mestre d'Aixa es un grupo de Habaneras que se formó hace más de 35 años en Vilasar de Mar. El grupo siempre ha mantenido su formación original compuesto por voces mixtas, acordeón y guitarras acompañados por instrumentos de percusión. El conjunto tiene un estilo particular que combina la habanera y los ritmos marineros con la canción tradicional y popular.

**IRAILA** SEPTIEMBRE
**IGANDEA** DOMINGO **10**

**20:00 / 3€**
**BONUA** ABONO: **7€**

**ARETOA** SALA: **EREAGA**
**80 MIN**

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO



## LIUBA MARIA HEVIA

**Liuba Maria Hevia, musikagile, trovadora eta abeslaria. Kuba eta iberoamerikar musika arloko ezinbesteko ahotsa. Hemezortzi urte besterik ez zituela Nueva Trova Cubanan sartu zen neska hark, gaur egun hogei bat disko ditu bere esku, eta horien artean, bere obra propio eta zabala ez ezik, musika-balio handiko antologiak eta askotariko generoak daude ere, hala nola, habanera, guajira, tangoa, Espainiako haur-kantutegi tradizionala eta Venezuelako folklorea.**

Liuba María Hevia, compositora, trovadora y cantante, ha llegado a convertirse en una de las voces imprescindibles del panorama musical cubano e iberoamericano. Aquella joven entró a formar parte de la Nueva Trova Cubana, tiene hoy una veintena de discos en su haber, entre los que, además de su propia y extensa obra, incluye antologías de gran valor musical y géneros tan variados como la habanera, la guajira, el tango, el cancionero infantil tradicional español y el folclore venezolano.

# 39. NAZIOARTEKO FOLK JAIALDIA
# 39.ª FESTIVAL INTERNACIONAL DE FOLK

**13 > 17 IRAILA** SEPTIEMBRE

**BONUA** ABONO: **70 €**

**MUXIKEBARRI**

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**

ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO

**Getxoko Nazioarteko Folk Jaialdiaren 39. edizioan artista ospetsuez gozatzeko aukera izango dugu, bai Muxikebarrin, bai aire zabaleko espazioetan. Bost egunetan zehar, emanaldiak izango dira goiz, arratsalde eta gauez eta, gainera, Ereaga hondartzako kontzertuak itzuliko dira. Adin guztietako ikusleentzako programazio osoa.**

En la 39.ª edición del Festival Internacional de Folk de Getxo podremos disfrutar de renombrados artistas tanto en Muxikebarri como en espacios al aire libre. Durante cinco jornadas, habrá actuaciones mañana, tarde y noche y vuelven, además, los esperados conciertos de la playa de Ereaga. Una programación completa para públicos de todas las edades.

## ORDAINEZKO KONTZERTUAK
## CONCIERTOS DE PAGO

**MUXIKEBARRI**
**ARETOA** SALA: **EREAGA**

## DOAKO KONTZERTUAK
## CONCIERTOS GRATUITOS

**AREETAKO GELTOKIA PLAZA**
PLAZA DE LAS ESTACIÓN DE LAS ARENAS

**IRAILA** SEPTIEMBRE **15>17**

**GOIZEKO KONTZERTUAK**
CONCIERTOS MATINALES
**13:00**

**IRAILA** SEPTIEMBRE **16>17**

**ARRATSALDEKO KONTZERTUAK**
CONCIERTOS DE TARDE
**18:00**

**IRAILA** SEPTIEMBRE **15>16**

**GAUEKO KONTZERTUAK**
CONCIERTOS DE NOCHE
**21:00**

**IRAILA** SEPTIEMBRE **15>16**

**EREAGAKO KONTZERUAK**
CONCIERTOS DE EREAGA
**22:00**

**IRAILA** SEPTIEMBRE **15>17**

**BESTELAKOAK**
OTROS

IRAILA SEPTIEMBRE
**ASTEAZKENA** MIÉRCOLES **13**

**20:00 / 24€**

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**90 MIN**

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO




# HAUsPOZ

## Kepa Junkeraren Omenezko kontzertua

## Concierto-Homenaje a Kepa Junkera

**Agurtzane Elustondo, Ibon Koteron, Iñaki Telleria, Ion Elustondo Pandereteras del Barrio, Kukai Dantza, La Cobla de Sant Jordi, Maixa Lizarribar, Oreka TX, Uxia, Budiño, Xabi Aburruzaga**

HAUsPOZ izeneko saioan Kepa Junkera handia omenduko dugu. Jatorri askotako artisten eskutik, kontzertu honek bere musika ospatzera, berarekin elkartzera eta bere lanarekin utzi dizkigun poz eta emozioak partekatzera garamatza. Trikitixaren doinuak eta euskal erritmoek bat egiten dute Galizia, Kantabria eta Kataluniako soinuekin ikuskizun bizi, alai eta koloretsu honetan, Kepak bere abentura musikalean zehar irekitako bidea erakusteko, 'Erromeriak' bere azken lanari egindako keinua ahaztu gabe.

HAUsPOZ homenajea al gran Kepa Junkera. De la mano de artistas de procedencias muy diversas, esta concierto nos lleva a celebrar su música, a encontrarnos con él a y a compartir las alegrías y emociones que nos ha dejado con su trabajo. La música de la trikitixa y los ritmos vascos se unen a los sonidos de raíz de Galicia, Cantabria y Cataluña en este intenso, alegre y colorido espectáculo para mostrarnos el camino abierto por Kepa a lo largo de su aventura musical, sin olvidar un guiño a su último trabajo: 'Erromeriak'.

**14** **IRAILA** SEPTIEMBRE
**OSTEGUNA** JUEVES

## 20:00 / 20€

**ARETOA** SALA: **EREAGA**
**80 MIN**

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO



# VALÉRIE EKOUMÉ

**Musikarien familiakoa, Valérie Ekoumé frantziar kamerundar abeslaria da. Kongoko rumba, Michael Jackson bezalako pop generoko artistak eta Kamerungo musika entzuten hazi zen. Bere bizitzak bira bat eman zuen 2004an, Manu Dibangorekin Soul Makossa Gang lanean aktiboki hasi zenean. Kultura anitzeko belaunaldi berri horretakoa dugu Valèrie, eta Afrikako kultura eta erritmoak publikoarekin partekatzea du helburu nagusi.**

De familia de músicos, Valérie Ekoumé es una cantante franco-camerunesa. Creció escuchando varios estilos musicales de rumba congoleña, artistas de música pop como Michael Jackson y también sonidos cameruneses. Su vida dio un giro en 2004 cuando comenzó a trabajar activamente con Manu Dibango en Soul Makossa Gang. La artista pertenece a esta nueva generación multi-cultural que tiene como objetivo principal compartir la cultura y ritmos africanos con el público.

**15** **IRAILA** SEPTIEMBRE
**OSTIRALA** VIERNES

## 20:00 / 20€

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO



# HEVIA

**Hevia, gaita elektronikoaren sortzaile asturiar internazionala, herri musika irauli eta bere jaioterritik haratago esportatu zuen. Gaitari maisu bezala hainbat gaita-banda sortu ditu Asturiasen. “Al son el Indianu” disko-liburu formatuko bere azken argitalpena da, bidai musikala erritmo latinoetan zehar. Mende batez Ameriketara emigratu zuten milioi bat baino gehiago asturiarren omenez sortutakoa, Asturiasen «indiano» izenez ezagutzen direnak.**

Hevia, el internacional gaitero asturiano inventor de la gaita electrónica, ha revolucionado la música popular exportándola más allá de su Asturias natal. Como maestro gaitero ha fundado varias bandas de gaitas en Asturias. “Al son el Indianu” es su última publicación en forma de disco+libro. Un viaje musical por los ritmos latinos que homenajea a todos aquellos asturianos que durante un siglo emigraron hacia América y se convirtieron en lo que, en Asturias, se conoce como “indianos”.

**IRAILA** SEPTIEMBRE
**LARUNBATA** SÁBADO **16**

**20:00 / 15€**

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO



## LAS MIGAS

**Lau emakume musikal, gerlari eta bidaiari, behin eta berriz, berpiztu eta berrasmatzen direnak. Nahastezinak, bakarrak, horiek dira: LAS MIGAS. Sortu eta hemezortzi urtera, flamenko femenino, ausart eta alaienaren klasiko txiki bat dira. Flamenko Disko Onenaren Latin Grammy saria jaso berri dute "Libres" bere azken lanarekin (2022), baita 2020ko flamenko disko onenaren Musika Independentearen Saria (MIN) ere.**

Cuatro mujeres músicas, guerreras y viajeras renacen y se reinventan, una y otra vez. Son ellas, inconfundibles, únicas: Son LAS MIGAS. Dieciocho años después de su fundación son ya un pequeño clásico del flamenco más femenino, valiente y alegre. Con un reciente Latin Grammy al Mejor Álbum Flamenco 2022 por su último trabajo "Libres", un Premio de la Música Independiente (MIN) al mejor álbum de flamenco 2020.

**IRAILA** SEPTIEMBRE
**IGANDEA** DOMINGO **17**

**20:00 / 20€**

**ARETOA** SALA: **EREAGA**
**90 MIN**

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO



## SILVANA PERES

**"Fado no pé" ren ondoren, Silvana Peresek (Portugal) bere bigarren estudio lana "Água Nova" (2022) ekarriko digu Getxora. Bertan, fado tradizionala eta Lisboako martxak Portugalgo, Brasilgo eta Afrikako beste soinu batzuekin uztartzen ditu, hala nola xote, chorinho eta coladeirarekin. Disko berri hau hainbat egileren hamar abestik osatzen dute: Dino Santiago, Paulo Abreu Lima, Raquel Tavares, Sebastião Antunes, Jonas Lopes, Beatriz Pessoa, João Caetano, Carlos Leitão...**

Después de "Fado no pé", Silvana Peres (Portugal) nos trae a Getxo su segundo trabajo <<Água Nova>> (2022) en el que fusiona el fado tradicional y marchas de Lisboa con otros sonidos portugueses, brasileños y africanos, como el xote, el chorinho y la coladeira. Este nuevo álbum está compuesto por diez temas de distintos autores, entre ellos: Dino Santiago, Paulo Abreu Lima, Raquel Tavares, Sebastião Antunes, Jonas Lopes, Beatriz Pessoa, João Caetano, Carlos Leitão...

# GOIZEKO KONTZERTUAK
# CONCIERTOS MATINALES

**15 > 17** **IRAILA** SEPTIEMBRE

**13:00**

**AREETAKO GELTOKIA PLAZA**

PLAZA DE LA ESTACIÓN DE LAS ARENAS

**DOAN** / GRATIS



**Irailaren 15etik 17ra, Areeta Geltokia plazan folk doinuak entzungo dira eguerdiro. Ostiralean, hilak 15, Moonshine Wagon heavy-bluegrass talde gasteiztarra izango dugu, larunbatean flamenkoaren eta txalapartaren arteko fusioaren txanda izango da, Berriketan konpainiaren eskutik. Azkenik, hilaren 16an, igandea, Amerika iparraldetik hegoaldera zeharkatuko dugu, SES kantautore galiziarrarekin.**

Del 15 al 17 de septiembre, la plaza de la Estación de Las Arenas vibrará a ritmo de folk cada mediodía. El viernes 15 contaremos con la banda vitoriana de heavy-bluegrass Moonshine Wagon, el sábado será el turno de la fusión entre el flamenco y la txalaparta a cargo de la compañía Berriketan que nos traerá su espectáculo “Arima”. Por último, el domingo 16 recorreremos América de norte a sur de manos de la cantautora gallega SES.



**IRAILA** SEPTIEMBRE
**OSTIRALA** VIERNES **15**

## MOONSHINE WAGON
## (EUSKADI)



**IRAILA** SEPTIEMBRE
**LARUNBATA** SÁBADO **16**

## BERRIKETAN: ARIMA
## (EUSKADI + ANDALUCÍA)

**85 MIN**



**IRAILA** SEPTIEMBRE
**IGANDEA** DOMINGO **17**

## SES
## (GALIZIA)

**90 MIN**

# ARRATSALDEKO KONTZERTUAK
# CONCIERTOS DE TARDE

**16 > 17** **IRAILA** SEPTIEMBRE

**18:00**

**AREETAKO GELTOKIA PLAZA**

PLAZA DE LA ESTACIÓN DE LAS ARENAS

**DOAN** / GRATIS





**IRAILA** SEPTIEMBRE
**LARUNBATA** SÁBADO **16**

## BASKERY



**IRAILA** SEPTIEMBRE
**IGANDEA** DOMINGO **17**

## LAS KARANBA

**Arratsaldeko kontzertuek emakume izena izango dute. Larunbatean, hilak 16, Baskery (Suedia) taldearen txanda izango da. Hiru ahizpek osatutako dute banda honek amerikar sustraietako musikaren eta punkaren arteko fusioa ekarriko digute. Igandean, hilak 17, Las Karanbak, munduko hainbat lekutako (Venezuela, Kuba, Argentina eta Katalunia) emakume migratzailez osatutako musika proiektuak, erritmo latinoak, són, cha cha chá, salsa eta tinbra hurbilduko dizkigu, besteak beste.**

Los conciertos de la tarde tendrán nombre de mujer. El sábado 16 será el turno de la banda Baskery (Suecia) formada por tres hermanas que nos traerán la fusión entre la música de raíces americana y el punk. El domingo 17, Las Karanba, un proyecto musical formado íntegramente por mujeres migrantes de diversos lugares del mundo (Venezuela, Cuba, Argentina y Cataluña), nos acercarán los ritmos latinos como, el són, cha cha chá, la salsa y la timbra, entre otros. nos acercarán los ritmos latinos, el són, cha cha chá, la salsa y la timbra, entre otros.

# GAUEKO KONTZERTUAK
# CONCIERTOS DE NOCHE

**15 > 16** **IRAILA** SEPTIEMBRE

**21:00**

**AREETAKO GELTOKIA PLAZA**
PLAZA DE LA ESTACIÓN DE LAS ARENAS

**DOAN** / GRATIS



**Aire zabaleko 21:00etako emanaldietan, Getxo Folkak askotariko soinuak hurbilduko dizkigu, Ars Armandi (Avila) folk metal taldearen, rockaren eta folkloreko elementuen arteko nahasketatik hasi eta Faltriqueira talde galiziarraren polifonia, perkusioak eta instrumentu akustikoen arteko fusiora arte. Adin guztientzako musika.**

En las actuaciones de las 21:00. al aire libre, el Getxo Folk nos cercará sonidos muy diversos, desde la mezcla entre el rock con los elementos del folklore del grupo de folk metal Ars Armandi (Ávila) hasta la fusión entre la polifonía, las percusiones y los instrumentos acústicos de la banda gallega Faltriqueira. Música para de todas las edades.



**IRAILA** SEPTIEMBRE
**OSTIRALA** VIERNES **15**

## ARS AMANDI



**IRAILA** SEPTIEMBRE
**LARUNBATA** SÁBADO **16**

## FALTRIQUEIRA

# EREAGAKO KONTZERTUAK
# CONCIERTOS DE EREAGA

## 15 > 16 IRAILA SEPTIEMBRE

**22:00**

**AREETAKO GELTOKIA PLAZA**
PLAZA DE LA ESTACIÓN DE LAS ARENAS

**DOAN** / GRATIS





**IRAILA** SEPTIEMBRE **15**
**OSTIRALA** VIERNES

## MAGO DE OZ



**IRAILA** SEPTIEMBRE **16**
**LARUNBATA** SÁBADO

## LA PEGATINA

**Getxoko Nazioarteko Folk Jaialdiaren 39. edizioarekin, Ereaga hondartzako kontzertuak itzuliko dira, jai-giroa ardatz hartuta. Mago de Oz (hilak 15, ostirala) eta La Pegatina (hilak 16, larunbata) arduratuko dira horretaz. Talde madrildarrak heavy metala hard rockarekin, musika klasikoarekin eta musika zeltarekin nahastuko ditu, eta larunbatean talde katalanaren merenge, rumba edo ska kementsu eta festazalearen txanda izango da.**

Con la 39.ª edición del Festival Internacional de Folk de Getxo vuelven los conciertos de la playa de Ereaga que tienen como eje principal el ambiente festivo. De ello se encargarán las bandas Mago de Oz (viernes, 15) y La Pegatina (sábado, 16). La banda madrileña nos traerá su inconfundible mezcla de heavy metal con hard rock, música clásica y música celta, y el sábado será el turno del merengue, la rumba o el ska enérgico y festivalero de la banda catalana.

# BESTELAKOAK
# OTROS

## 15 > 17 IRAILA SEPTIEMBRE

**AREETAKO GELTOKIA PLAZA**

PLAZA DE LA ESTACIÓN DE LAS ARENAS

**DOAN** / GRATIS



**Ezin dugu ahaztu Areetako Geltokia plaza berriko aire zabaleko anfiteatroa. Bertan, publiko guztientzako eta, batez ere, familia osoarentzako proposamenak izango ditugu. Ostiralean, hilak 15, Odaiko talde galiziarrak perkusioa ekarriko digu umorez eta tradizioa eta modernitatea osatzen duten elementu berezien eszenaratzeaz baliatuta.Larunbatean (goizez eta arratsaldez) eta igandean (goizez), familiek sorkuntzako musika-tresnekin esperimentatu ahal izango dute, “Orquestronia” instalazio parte-hartzaileari esker. Igandean amaiera emango diogu jaialdiari anfiteatroan, Iholdi Beristain aktoreak eta Peru Irastortza Santxo bertsolariak ahotsa jartzen dioten “Labarretan” dantza eta diziplina anitzeko ikuskizunarekin.**

No nos podemos olvidar del anfiteatro al aire libre de la nueva Plaza de la Estación de Las Arenas, donde contaremos con propuestas para todos los públicos y principalmente para toda la familia. El viernes 15 la banda gallega Odaiko nos trae la percusión desde el humor y la puesta en escena de elementos singulares que integran tradición y modernidad. El sábado 16 (mañana y tarde) y el domingo 17 (mañana) las familias podrán experimentar con instrumentos musicales de creación propia gracias a la instalación participativa “Orquestronia”. El domingo pondremos broche final al festival en el anfiteatro con el espectáculo multidisciplinar de danza y bertsolaritza “Labarretan”,  y al que ponen voz la actriz Iholdi Beristain y el bertsolari Peru Irastortza Santxo.



**IRAILA** SEPTIEMBRE
**OSTIRALA** VIERNES **15**

## ODAIKO (GALIZIA)

**17:00**



**IRAILA** SEPTIEMBRE **16>17**

## ORQUESTRONIA

**LARUNBATA** SÁBADO:
**10:00-14:00 / 16:00-20:00**

**IGANDEA** DOMINGO:
**10:00-14:00**



**IRAILA** SEPTIEMBRE
**IGANDEA** DOMINGO **17**

## LABARRETAN
Zelako kultur ideiak

**17:00**

**IRAILA** SEPTIEMBRE
**OSTIRALA** VIERNES
**15**
**19:00**

**SARI BANAKETA** ENTREGA DE PREMIOS

**ARETOA** SALA: **AREETA**

**GONBIDAPENEZ:**
**ABUZTUAREN 7TIK AURRERA ESKURAGARRI**

CON INVITACIÓN:
DISPONIBLE A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO



## "RAMIRO PINILLA" ELEBERRI LABURREN 6. LEHIAKETA "TXIKI BASKARDO" HAUR KONTAKIZUNEN 6. LEHIAKETA

## 6.º CONCURSO DE NOVELA CORTA "RAMIRO PINILLA" 6.º CONCURSO INFANTIL DE RELATOS "TXIKI BASKARDO"

**Ramiro Pinilla eta Txiki Baskardo literatur lehiaketen sari banaketa bueltan da. Seigarren edizio honetan, jasotako lanen bolumenak eta horien aniztasunak eleberri laburren lehiaketaren garrantzia bermatzen dute. Aldi berean, tokiko ikastetxeei zuzendutako "Txiki Baskardo" ipuin lehiaketak literatura-zaletasuna sustatzen du DBHko 1. mailako ikasleen artean.**

Vuelve la entrega de premios de los certámenes literarios Ramiro Pinilla y Txiki Baskardo. En esta sexta edición, el volumen de trabajos recibidos y la diversidad de estos avalan la relevancia del concurso de novela corta. De forma paralela, el concurso infantil de relatos "Txiki Baskardo" dirigido a los centros escolares locales promueve la afición literaria entre el alumnado de 1.º de ESO.

**IRAILA** SEPTIEMBRE
**OSTIRALA** VIERNES
**22**
**21:00 / 8€**

**MUSIKA** MÚSICA

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**ESERLEKUAN** EN BUTACA

**75 MIN**

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO



## DE COSTA A COSTA

### Charlie Cosh eta Mikel Gaztañaga

**Charlie Coshek (gitarra eta ahotsa) eta Mikel Gaztañagak (pianoa) kostatik kostarako bidaia musikala proposatzen digute, San Frantziskotik New Orleansera, 60ko hamarkadako rockaren, folkaren, bluesaren eta amerikar sustraiko musiken arrakasta handiak errepasatuz. Kontzertu honetan, publikoak Country Rockeko talde handiez gozatu ahal izango du, Kanadan geldialdi bat egin, Greenwich Village eta WNew Yorkeko Woodstockfolk rockaren ibilbidearekin jarraitu eta Mississippin amaitu.**

Charlie Cosh (guitarra y voz) y Mikel Gaztañaga (piano) nos proponen un viaje musical de costa a costa, desde San Francisco hasta New Orleans, repasando los grandes éxitos del rock de los años 60, el folk, el blues, y las músicas de raíz americana. Un concierto en el que el público podrá disfrutar de grandes grupos del Country Rock, hacer una parada en Canadá, continuar el recorrido con el folk rock del Greenwich Village y Woodstock newyorkino y finalizar el viaje en Mississippi.

ANTZERKIA TEATRO

# 23 IRAILA SEPTIEMBRE LARUNBATA SÁBADO

## 20:00 / 15 €

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**80 MIN**

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**

ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO



## TODAS LAS HIJAS

### Ane Gabarain, Gemma Martínez, Maribel Salas, Sol Maguna, Vito Rogado

**"Todas las hijas" bost emakume aktoreren historia da. Bost emakumek hitz egiten dute honaino nola iritsi diren kontatzeko, beren bizitzak eta artea nola bizi izan dituzten adierazteko eta galdera honi erantzuteko: zergatik sentitzen duten kezka bat beren bularraren barren-barrenean, bihotzaren eta biriken artean, sentimenduak eta arnasa kokatzen diren lekuan. Baina denak gogoratzen dira beren amaz, horregatik dira denak alabak. Gemma Martínezen proiektu bat, David Caiñak idatzia eta Andrés Limak zuzendua.**

"Todas las hijas" es la historia de cinco actrices. Cinco mujeres hablan de cómo han llegado hasta aquí, de cómo han vivido sus vidas y su arte y de porqué en el fondo del pecho, entre el corazón y el pulmón, donde se siente y se respira, hay una inquietud. Pero todas se acuerdan de su madre, por eso todas son las hijas. Un proyecto de Gemma Martínez escrito por David Caiña y dirigido por Andrés Lima.

DANTZA DANZA

# 24 IRAILA SEPTIEMBRE IGANDEA DOMINGO

## 19:30 / 10 €

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**65 MIN**

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**

ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO



## BESTIAS HERIDAS O SI DIOS FUESE UNA "MUJER"

### Dama de vidrio

**Jainkoak *gizona* bere irudi eta antzera sortu bazuen, eta "gizona" arrazoitzeko edo hitz egiteko gaitasuna duen izaki bizidun gisa ulertuz gero, zerk eragozten dio "emakumeari", *gizona* dela, Jainkoa izatea? Lotsagabekeria da hizkera, eta horregatik, "emakume" berriak trajea janzten du erronka gisa. *Gizona*ren parekoa ez den "emakumea", haren aurkaria baizik. Jainkoa arketipoa izanik, "gizona" estereotipoa, "emakumea" prototipoa, animalia izatea da emaitza bakarra.**

Si Dios creó al *hombre* a su imagen y semejanza, y entiéndase "hombre" como ser vivo que se supone tiene capacidad por ejemplo para razonar o hablar, ¿qué le impide a la "mujer", que es *hombre* , ser Dios? La insolencia es su diálogo, y por ello, la nueva "mujer" lleva traje como desafío, una "mujer" que ya no es igual al *hombre* , sino su adversaria. Con Dios como arquetipo, "hombre" como estereotipo, "mujer" como prototipo, ser animal es el resultado.

**IRAILA** SEPTIEMBRE
**OSTIRALA** VIERNES
**29**
**19:30 / 12 €**

**ANTZERKIA** TEATRO

**ARETOA** SALA: **EREAGA**
**100 MIN**

**SARRERAK ABUZTUAREN 7TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO



# LOS DÍAS AJENOS DE BOB

## Bob Pop

**Besaulki bat, zutikako lanpara bat, eta liburu enblematiko pila bat. Bob Pop, bere jantzi lotsagabearekin eta pastazko betaurreko mitikoekin, ikusleari barre eta dardara egiteko prestatzen ari da. 'Los Días Ajenos' obrarekin, Bob Pop puri-purian, gidoirik gabe eta inprobisazio biziarekin, bere bizitza errepasatzen du besteen eta norberaren egunkarien bitartez. Esperientzien collagea, azken urteetako pertsonarik urratzaile eta garratzenetako baten begirada eta enpatiaren eskutik.**

Un sillón, una lámpara de pie, y un montón de libros emblemáticos. Bob Pop, con su traje desenfadado y sus míticas gafas de pasta, se prepara para provocar al espectador un volcán de risas y estremecimientos. Con 'Los Días Ajenos', disfrutamos de un Bob Pop en estado puro, sin guion y con una improvisación vital, repasa su vida a través de los diarios de otros y los propios. Un collage de experiencias de la mano, la mirada y empatía de una de las personalidades más transgresoras y mordaces de los últimos años.

**ANTZERKIA** TEATRO

# 29-30 > 01 | 26

**IRAILA** SEPTIEMBRE – **URRIA** OCTUBRE | **AZAROA** NOVIEMBRE

## JUANA BIZKARRA 3. ARTE ESZENIKOEN EGONALDIA
## 3.º RESIDENCIA ARTÍSTICA DE ARTES ESCÉNICAS JUANA BIZKARRA

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**GONBIDAPENEZ: ABUZTUAREN 7TIK AURRERA ESKURAGARRI** CON INVITACIÓN: DISPONIBLE A PARTIR DEL 7 DE AGOSTO

**29 IRAILA** SEPTIEMBRE
**LARUNBATA** SÁBADO

**19:00 ENTSEGU IREKIA** ENSAYO ABIERTO

**30>01**
**IRAILA** SEPTIEMBRE **URRIA** OCTUBRE

**19:00 AURRE-ESTRENALDIA** PREESTRENO

**26 AZAROA** NOVIEMBRE
**IGANDEA** DOMINGO

**19:30 ESTREINALDIA** ESTRENO

**SARRERA** ENTRADA: **12€**

**AZAROAREN 2TIK AURRERA SALGAI**
A LA VENTA A PARTIR DEL 2 DE NOVIEMBRE




## eMcumeak
### Zelako kultur ideiak

**Juana Bizkarra egonaldi artistikoaren hirugarren edizioan hautatutako proiektua "eMcumeak" euskal emakume sortzaileen egoera taularatzea du helburu, baita kultur sektoreko androzentrismoa agerian jarri ere. Iraganeko zein orainaldiko euskal emakume sortzaileen izenak eta izanak mahai gainean jarriko ditu antzezlanask, umore eta hitz-joko bitartez, gastronomiari lotutako jolasak bitartean. Publikoa Muxikebarrin sartu orduko, janari lasterreko jatetxe famatu baten atmosferan murgilduko da, on egin!**

El proyecto "eMcumeak" seleccionado en la tercera edición de la residencia artística Juana Bizkarra tiene como objetivo poner en escena la situación de las mujeres creadoras vascas, así como visibilizar el androcentrismo en el sector cultural. La obra pondrá sobre la mesa, a través del humor y el juego de palabras, los nombres y los personajes de las creadoras vascas, tanto del pasado como del presente, mientras se desarrollan juegos de palabras relacionados con la gastronomía. El público se sumergirá en la atmósfera de un famoso restaurante de comida rápida a su entrada en Muxikebarri, ¡buen provecho!

IRAILA SEPTIEMBRE
LARUNBATA SÁBADO **30**
**20:00 / 8€**

MUSIKA MÚSICA

**ARETOA** SALA: **EREAGA**
**80 MIN**

**SARRERAK IRAILAREN 4TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 4 DE SEPTIEMBRE



# VIAJE AL CENTRO DE LA MÚSICA SINFÓNICA Y CORAL

## EHUorkestra sinfonikoa & Mercedes Albaina

**Hitzaldi ilustratua zuzeneko musikarekin, EhuORKESTRAren eta Mercedes Albainaren eskutik. Hitzaldi-kontzertu honetan Mercedes Albainak ibilbide historikoa aurkezten digu musikaren Europan zehar. UPV/EHUko Orkestrak eta Biotz Alai eta Eskuz Esku Abesbatzek zuzenean interpretatutako piezek musika sinfoniko eta koralaren lengoaia liluragarriaren askotariko genero eta estiloak irudikatuko dituzte Europako hiri garrantzitsu batzuetan zehar.**

Conferencia ilustrada con música en directo de la mano de EhuORKESTRA y Mercedes Albaina. En esta conferencia-concierto Mercedes Albaina nos presenta un recorrido histórico por la Europa de la música. Un viaje sonoro por algunas de las principales ciudades europeas, en el que las distintas piezas interpretadas en directo por la Orquesta de la UPV/EHU y los coros Biotz Alai y Eskuz Esku Abesbatza ilustrarán los variados géneros y estilos por los que fue discurriendo y evolucionando el fascinante lenguaje de la música sinfónica y coral.

# 41. ARTE ESZENIKOEN JARDUNALDIAK

# 41.ª JORNADAS DE ARTES ESCÉNICAS

## 6 > 22 URRIA OCTUBRE

**SARRERAK IRAILAREN 4TIK AURRERA SALGAI**

ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 4 DE SEPTIEMBRE



ANTZERKIA TEATRO

**6 URRIA** OCTUBRE
**OSTIRALA** VIERNES

**19:30 / 8€**

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**80 MIN EUSKARAZ**

**SARRERAK IRAILAREN 4TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 4 DE SEPTIEMBRE



## ZEOZERTAN DABIL BAINA EZ DAKIT ZERTAN

### Metrokoadrakoa Sormen Laborategia

**Getxoko Arte Eszenikoen Jardunaldien 41. edizioan, programazio aberatsa izango dugu modalitate artistikoetan, dantzatik hasi eta zirku-antzerkiraino, diziplina anitzeko generoak barne. Urriaren 6tik 22ra bitartean, Getxo Eszenak 9 ikuskizun ekarriko ditu Muxikibarrira, bai familientzat, bai helduentzat, eta Euskaditik eta Estatutik etorritako konpainiak izango dira bertan.**

En la 41ª edición de las Jornadas de Artes Escénicas de Getxo, disfrutaremos de una programación rica en modalidades artísticas, desde danza hasta circo-teatro pasando por géneros multidisciplinares. Del 6 al 22 de octubre, Getxo Eszena traerá a Muxikebarri 9 espectáculos tanto para el público familiar como para aquel más adulto, contando con la presencia de compañías procedentes de Euskadi y del Estado.

**Etxe bat, edozein etxe. Egongela bat, edozein egongela. Hiru lagun, elkarri galdezka: "Gu familia bat gara?". Baina bere ekintzen harira joango da deskubritzen hirukote honek ezkutatzen duena. Hari horretan, familiari loturiko galderek, kontraesanek eta umorezko zirtoek zeharkatuko dute antzezlana.**

Una casa, cualquier casa. Un salón, cualquier salón. Tres amigos preguntándose: "¿Somos una familia?". Poco a poco irá desvelándose, por medio de sus acciones, qué se esconde bajo sus risas enlatadas. Sobre esta base un aluvión de preguntas, contradicciones y momentos humorísticos entretejen un viaje escénico inesperado.

**URRIA** OCTUBRE
**LARUNBATA** SÁBADO
# 7
**20:00 / 12€**

**ANTZERKIA** TEATRO

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**80 MIN**

**SARRERAK IRAILAREN 4TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 4 DE SEPTIEMBRE



## NEVENKA
### Histrión teatro

**2001ean, Espainiako historian lehenengoz, emakume batek irabazi zuen politikari bati jazarpen sexuala egotzita egin zioten epaiketa. Nevenka Fernándezek alkate bat eserarazi zuen akusatuen aulkian. Lehenengo #MeToo kasua izan zen estatuan, eta auzitegiek arrazoia emakumeari eman bazioten ere. Orainalditik begiratuta, kasuak izan ginenaren irudia erakusten digu; aurreratu duguna ikus dezagun baina baita zauriak ere.**

En 2001, y por primera vez en la historia de España, una mujer ganó un juicio por acoso sexual a un político. Nevenka Fernández sentó por primera vez a un alcalde en el banquillo de los acusados, convirtiéndose en el primer caso de #MeToo en un país que le dio la razón en los tribunales. Hoy este caso nos devuelve la imagen de lo que fuimos para señalar los avances, pero también las heridas.

**URRIA** OCTUBRE
**IGANDEA** DOMINGO
# 8
**19:00 / 10 €**

**DANTZA** DANZA

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**52 MIN**

**SARRERAK IRAILAREN 4TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 4 DE SEPTIEMBRE



## ABUNDANCE
### Osa + Mujika

**Abundancek indarrean dirauen pentsamolde erromantikoa ezbaian jarriko du. Printze eta printzesaren istorioa desagertarazi nahi du. Obrak monogamia zalantzan jarriko du. Izan ere, oraindik hain ukiezina den bizitzeko modu honek norbanakoaren fantasiak ixilarazten ditu, benetako desirak gure buruetan giltzapetuta geratuz.**

Abundance pone en jaque la ideología romántica en la que seguimos tan anclado/as, intentado acabar con el príncipe azul o la media naranja. La obra cuestiona la monogamia, ese esquema social y amoroso intocable en el cual seguimos refugiadxs. Un modo de vida donde los deseos del individuo siguen oprimidos pero las fantasías vuelan por las mentes.

ANTZERKIA TEATRO

# 12 URRIA OCTUBRE OSTEGUNA JUEVES

## 19:00 / 5€

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**80 MIN**

**SARRERAK IRAILAREN 4TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 4 DE SEPTIEMBRE



# SUEÑO DE UNA NOCHE DE VERANO

## Sin remilgos (Cía. joven utopian)

**William Shakespeare-ren lan honek bere birtuosismoa erakusten du, komedia dramarekin, fikzioarekin, fantasiarekin eta errealitatea ametsekin uztartuz. Istorioak Atenaseko dukea den Teseo, Hipolita Amazonen erreginarekin, ezkontzean gertatzen diren gertaerak kontatzen ditu. Halaber, Atenaseko lau maitaleen eta bost aktoreren abenturak biltzen ditu, maitagarriak eta iratxoak bizi diren mundu magikoaren ondorioak pairatzen dituztenak.**

En esta obra, William Shakespeare demuestra su virtuosismo fusionando la comedia con el drama, la ficción y la fantasía y la realidad con los sueños. La historia narra los hechos que suceden durante el casamiento de Teseo, duque de Atenas, con Hipólita, reina de las Amazonas, sin olvidar las aventuras de cuatro amantes atenienses y cinco actores, que sufren las consecuencias del mundo mágico donde habitan hadas y duendes.

ANTZERKIA TEATRO

# 13 URRIA OCTUBRE OSTIRALA VIERNES

## 19:30 / 8€

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**100 MIN EUSKARAZ**

**SARRERAK IRAILAREN 4TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 4 DE SEPTIEMBRE



# HONDAMENDIA

## Axut! eta Artedrama

**Zaborra metafora bat da batzuetan. Baina ze metafora da kiratsa darion hau? 2020ko otsaila: zabortegi baten kolapsoak bi langile desagerrarazi ditu azpian. Esan patua izan dela. Esan zoria izan dela. Edo haien senide ttipi eta apala, zorte txarra. 2020ko martxoa: Covid-a heldu da. Osasun arazo batek bazterrean laga duen irrati-esataria, Zaldibarko zabortegiaren luiziari hitzak ematen saiatuko da. Egia, egitatea, kontakizuna...**

La basura no es sino una metáfora. Pero, ¿qué puede representar una metáfora que huele a podredumbre? Febrero de 2020: un vertedero se derrumba y dos trabajadores quedan sepultados en Zaldibar (Bizkaia). Llámese destino, fatalidad o, simplemente, mala suerte. Marzo de 2020: llega el Covid. Una periodista de radio de salud frágil tratará de dar voz al derrumbe, debatiéndose entre la verdad, los hechos y el relato...

**URRIA** OCTUBRE
**LARUNBATA** SÁBADO **14**

## 20:00 / 12€

**ANTZERKIA** TEATRO

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**70 MIN**

**SARRERAK IRAILAREN 4TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 4 DE SEPTIEMBRE



# SI TÚ TE VAS

## Cía. Pepa Plana

**Leiho bat, argi bat. Beste leiho bat, errutina bat. Beste leiho bat, eraikin bat non hiru emakumek ezin gelditu bati buruz aritzen diren. Hiru pailazo, antzinako exodoaren bide honetan aurkitzen direnak mundua birsortzeko eta gauza txikienei barre egiteko plazera itzultzeko, baina gauzek gogaitzen gaituztenean hatza lepoan jarriz. Ahaztutako hiru heroi, beren historia azaltzen digutenak barre eta barre eragiteko borondatearekin, gure oroimenean bizitzeko.**

Una ventana, una luz. Otra ventana, una rutina. Otra ventana, un edificio donde tres mujeres nos hablan de un no poder parar. Tres payasas que se encuentran en este camino del éxodo antiguo para recrear el mundo y devolvernos el placer de reírnos de las cosas más pequeñas, pero poniendo el dedo en la llaga cuando las cosas nos molestan. Tres heroínas olvidadas que nos explican su historia con la voluntad de reír y hacer reír.

**URRIA** OCTUBRE
**IGANDEA** DOMINGO **15**

## 18:00 / 6 €

**HAURRAK** INFANTIL

**ARETOA** SALA: **ARRIGUNAGA**

**55 MIN EUSKARAZ > 7 URTE** > 7 AÑOS

**SARRERAK IRAILAREN 4TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 4 DE SEPTIEMBRE



# ANDEREÑOA

## Anita maravillas

**Anita Maravillas Muxikebarrira dator bere zazpigarren muntaiarekin, “Andereñoa”, haur eta familientzako txotxongilo ikuskizuna, irakasle baten eta bere eskola txikiaren istorioa kontatzen duena, maitasunetik eta elkarren zaintzatik eraikitako eskola. Istorio honen bidez, maistra ausart haien hitzak bidaiatzen dituzte, eta belarrira xuxurlatzen digute aske izateko lehen baldintza hori saiatzea dela.**

Anita Maravillas viene a Muxikebarri con su séptimo montaje, “Andereñoa”, un espectáculo de títeres para el público infantil y familiar que narra la historia de una maestra y su pequeña clase, una escuela construida desde el amor y el cuidado mutuo. A través de esta historia viajan las palabras de aquellas valientes maestras y nos susurran al oído que la primera condición para ser libre es intentarlo.

DANTZA- ANTZERKIA
DANZA- TEATRO

# 21 URRIA OCTUBRE LARUNBATA SÁBADO

## 20:00 / 20 €

**ARETOA** SALA: **EREAGA**

**80 MIN**

**SARRERAK IRAILAREN 4TIK AURRERA SALGAI**
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 4 DE SEPTIEMBRE



# PANDATARIA

## Cayetana Gillén Cuervo, Chevi Muraday

**1941ean, Spinelli, Rossi eta Colorni kartzelan amaitu zuten, Mussoliniren aginduz. Zalantzan jarri zuten diktadorea boterera iritsi izana. Bertan, "Europa aske eta batu baten alde" manifestua idatzi zuten. Eta hori Pandataria da: jostun-tiradera, kartzela uhartea, baztertuaren uhartea, arauaren parte ez dena, sorta akastunetik datorrena, legezko hiritarra ez dena, soberan daudenen uhartea, mundua kolokan dutenena, baliozkoak ez direnena. Pandataria, beraz, beharrezko utopia da. Muga horiek ezabatzeko eta gizaki orok balio duela frogatzeko iritsi nahi dugun leku bat.**

En 1941, Spinelli, Rossi y Colorni acabaron en la misma isla-prisión por orden de Mussolini. Habían puesto en duda la llegada al poder del dictador. Allí, redactaron el manifiesto "Por una Europa libre y unida". Y eso es Pandataria: el cajón de sastre, la isla prisión, la isla del marginado, del que no forma parte de la norma, del que viene del lote defectuoso, del que no es un ciudadano legal, la isla de los que sobran, de los que tambalean el mundo, de los que no son válidos. Pandataria es, por lo tanto, una utopía necesaria. Un lugar al que aspiramos llegar para eliminar esas fronteras y demostrar que todo ser humano es válido.

URRIA OCTUBRE
OSTIRALA VIERNES
20
20:00 / 10€

DANTZA DANZA

ARETOA SALA: EREAGA
70 MIN
SARRERAK IRAILAREN 4TIK AURRERA SALGAI
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 4 DE SEPTIEMBRE



# ZARRA
## Adriana Bilbao

**Zarra dantza-obrak omendu eta aintzatetsi egiten du Telmo Zarraonandia (1921 - 2006), hirurogei urtez Espainiako futbol-ligako golegile nagusia izan zen jokalari enblematikoa. Ikuskizunak hurbildu egiten gaitu kirol horri atxikita dagoen herri baten jatorrietara eta oroimenera, meatzaritzari eta industriari loturiko sustraietara, eta ibilbide bat egiten du haren historian zehar, Telmok berak gidatutako pasadizoen bidez. Adriana Bilbao koreografoak, Zarraren bilobak, haren handitasuna nabarmentzen duen lan hau sortu du, aititeren omenez.**

Zarra es una obra de danza en homenaje y reconocimiento a la emblemática figura de Telmo Zarraonandia, Zarra(1921 – 2006), máximo goleador de la liga española durante sesenta años. Este trabajo se acerca a los orígenes, a la memoria de un pueblo muy ligado a este deporte, a su raíz minera-industrial; y recorre su historia a través de anécdotas guiadas por Telmo. La coreógrafa Adriana Bilbao, su nieta, crea en su honor esta obra que destaca su formidable grandeza.

URRIA OCTUBRE
IGANDEA DOMINGO
22
16:30- 19:00 / 6 €

HAURRAK INFANTIL

ARETOA SALA: EREAGA
75 MIN EUSKARAZ
SARRERAK IRAILAREN 4TIK AURRERA SALGAI
ENTRADAS A LA VENTA A PARTIR DEL 4 DE SEPTIEMBRE



# URTEAK BETE, ABENTURAK BIZI
## Pirritx, Porrotx eta Marimotots

